

## Konstruktibismoa

### 7.1. Sarrera

Hainbat gizarte-zientzian agertzen den konstruktibismoa (edo konstruktibismo soziala) 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadaren hasieran eratu zen NHen korrante gisa, gehienbat Nicholas Onuf-en eta Alexander Wendt-en eskutik<sup>143</sup>. Era askotako ekarpenak izan ziren hura sortzeko, besteak beste, hainbat pentsalari klasikoena<sup>144</sup>, zenbait korrante positibistaren oinarriak ezarri zituzten filosofo batzuenak (Derrida, Foucault, Habermas, etab.) eta Eskola Ingelesarenak, nazioarteko harremanak aztertzean eskola horrek arau eta alderdi kognitiboen erakusten duen interesagatik.

Azaldu ondoren, konstruktibismoak pisu handia hartu du, eta diziplinako korrante nagusietako bat da gaur egun. Hein handi batean, zabal he-

<sup>143</sup> ONUF, Nicholas G. (1989), *World of Our Making: Rules and Rule in Social Theory and International Relations*, University of South Carolina Press, Columbia; eta WENDT, Alexander (1992), «Anarchy is what States Make of it: the Social Construction of Power Politics», in *International Organization*, 46. lib., 2. zk., 391.-425. or.

<sup>144</sup> Beste sustrai klasiko batzuen artean, hauek nabarmentzen dira: Immanuel Kant, haren arabera, gure pentsamenduak errealitate objektiboaren jakintza subjektiboa sortzen baitu; Emile Durkheim, arreta handiz hartzen baitzuten faktore ideazionalak (hizkuntza praktikak, erlijio-sinesmenak, arau moralak, etab.), errealitate soziala eratzen duten «gertakari sozialak» diren aldetik; eta Max Weber, soziologiaren garapena sustatu baitzuen, parte-hartzaile sozialek ekintzei esleitzen dizkieten esanahi partekatuen esanahiak —gertakari ideazionalak diren esanahiak— interpretatzen dituen diziplina gisa. Ikus IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo: ideas, valores y normas en la política mundial», in ARENAL, Celestino del eta José Antonio SANAHUJA (koord.), *Teoría de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 192.-193. or.



datu da, erdiko espazioa hartu duelako, arrazionalismoaren eta postpositibismoaren artean, estrukturalismoaren eta indibidualismoaren artean, eta materialismoaren eta idealismoaren artean<sup>145</sup>. Tarteko kokaleku horri esker, zubi-lana egiten du korronte desberdinen artean. Aldi berean, haren heterogenotasunaren isla da hori, bai eta arlo askotan barnean dituen desadostasun handien irudia ere.

Konstruktibismoak ikuspegi alternatiboak eskaintzen ditu, (neo)errealisten eta (neo)liberalen ikuspegiak ez bezalakoak, eta alderdi ideazionalen garrantzia nabarmentzen du (ideiak, diskurtsoak, arauak, pertzepzioak, balioak, identitateak, etab.); horretarako, sakon berraztertzen ditu diziplinako alderdi ontologikoak, epistemologikoak eta metodologikoak. Oinarrizko bi ideia hauek ditu: errealitatea (eta nazioarteko harremanak ere bai) «eraikuntza sozial intersubjektiboaren» emaitza dela; eta faktore ideazionalak garrantzi handia dutela errealitatean, haiek zehazten baitituzte identitatea, interesak eta, beraz, nazioarteko parte-hartzaileen jarduna. Orokorrean, korronte postpositibistek postulatu horiek onartzen dituzte nola edo hala. Hala ere, funtsean eztabaida metateorikotan ardaztuta dauden korronte horietako batzuek ez bezala, konstruktibismoak lehentasuna ematen dio munduko politikako auzi enpiriko eta zehatzen azterketari, eta auzi horietatik abiatuta egiten ditu bere ekarpen kontzeptualak eta teorikoak. Hori da bere erreakzioa, nagusi diren korronte arrazionalistek postpositibistei egin dieten kritikaren aurrean; hau da, nazioarteko harremanen auzi praktikoak aztertzeari ez diotela ekiten<sup>146</sup>.

Ikuspegi epistemologikotik, oro har, konstruktibismoa postpositibista da, errealitate soziala sozialki eraikita dagoela aldeztzen baitu. Hargatik, ez du errealitatea azaldu nahi teoria unibertsalak eraikiz; aitzitik, lan gehiengotan, errealitate sozialeko alderdi jakin batzuk azaltzera mugatzen da. Horretarako, era askotako metodoak erabiltzen ditu, bereziki kualitatiboak, esanahi intersubjektiboak interpretatu eta errealitatearen dekonstruzioa egin ahal izateko (teknika etnografikoak eta genealogikoak, analisi sinbolikoa eta diskurtsoarena, etab.), baina batzuetan metodo kualitatibo eta kuantitatibo tradizionalak (estatistikak, konputagailu bidezko simulazioak, etab.) ere erabiltzen dituzte.

<sup>145</sup> ADLER, Emanuel (1997), «Seizing the Middle Ground: Constructivism in World Politics», in *European Journal of International Relations*, 3. lib., 3. zk., 319.-363. or.

<sup>146</sup> REUS-SMIT, Christian (1999), «Constructivism», in BURCHILL, Scott *et al.* *Theories of International Relations. Third Edition*, Palgrave-McMillan, Londres, 195. or.



## 7.2. Egitura ideazionalak eta normatiboek nazioarteko politikan duten garrantzia

Egitura materialak aztergai dituzten beste ikuspegi batzuen aurrez aurre (adibidez, errealismoak aztertutako botere militarren ikuspegiaren edo marxismoak ikertutako ikuspegi ekonomikoaren aurrean), konstruktibismoak esaten du egitura ideazionalak eta normatiboak ere badaudela; gizartean partekatutako ideia, sinesmen eta balioen sistemek eratzen dituztela; eta egitura horiek eragin sakona dutela nazioarteko harremanetako ekintza politikoan. Hori da, izan ere, konstruktibismoaren oinarritzko lehen ideia.

Hala da, konstruktibismoaren ustez ez dago errealitate objektibo eta independenterik, errealitatea ez baitu soilik mundu materialak eratzen, mundu ideazionalak ere eratzen baitu, hau da, guk errealitateaz dugun jakintzak eta egiten dugun irudikapenak. Hargatik, korrante honek «errealitatearen eraikuntza sozialaren» azterketa du ardatz, norbanakoen eta taldeen arteko interakzio «intersubjektiboko» prozesu bat, testuinguru jakin batean gizarte-mailan adostutako ideiak eta arauak sortzeko, zeinek errealitatea interpretatzeaz gain errealitatea bera sortzen baitugu. Hala adierazten du joera horretako lan garrantzitsu honen izenburuak: *World of our making* (Onuf, 1989)<sup>147</sup>.

*Intersubjektibitate* nozioa oinarritzkoa da konstruktibismoan, gauzen esanahia behatzaileak haietaz egiten duen interpretazioan datzalako. Esanahi intersubjektiboak ez dira norbanakoen sinesmen subjektiboen batura, baizik eta parte-hartzaile sozialen jakintza kolektiboa, elkarren arteko adostasunez ezarria («intenzionalitate kolektiboa»). Esanahi kolektiboen eraikuntza hori komunikazio sozialaren eta mintzairaren ekintza diskurtsiboen bidez egiten da; izan ere, horiek, errealitatea deskribatzeaz gain, zentzua ematen diote eta eraiki egiten dute, esanahi intersubjektiboen bidez. Hizkuntza arreta bereziz landu behar da nazioarteko harremanak aztertzerakoan. Izan ere, ekintza diskurtsiboen bidez, laguntza ematen du mundua ezagutzeko, arazo sozialak eta izan litezkeen irtenbideak definitzeko, eta nazioarteko parte-hartzaileen identitatea, interesak eta jarduna zehazteko<sup>148</sup>.

Azken batean, esanahi intersubjektiboek nazioarteko ekintza politikoa itxuratzen dute. Adibidez, mailarik sakonenean, nolabait esan daiteke estatuen nazioarteko sistema berez esanahi intersubjektiboek eratzen dutela, estatuen elkarrekiko onarpenean oinarritzen baita, subiranotasunaren eta hari dagozkion eskubide eta betebeharren eta instituzio eta balioen onar-

<sup>147</sup> ONUF, Nicholas G. (1989), *World of our making...*, *op. cit.*

<sup>148</sup> IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo...», *op. cit.*, 204. or.



penean. Arlo zehatzagoetan, nazioarteko gizarteak —edo haren zati bat— arau eta instituzio batzuk onartu eta ezarri ditu (giza eskubideak, disuasio militarra, botere-oreka, ingurumenari buruzko arauak, merkatu askea, etab.), eta horiek nazioarteko politika eratu dute aldi ezberdinetan.

Hala, nazioarteko errealitatea eraikitzeke duen garrantzia ikusita, konstruktibismoak arreta handiz lantzen du faktore ideazionalen azterketa, eta, horien artean, ideiak nabarmentzen ditu. Ideiak era askotakoak izan daitezke, hala mundu-ikuskerara eta ideologia orokorrek, nola arazo zehatzei buruzko ikuspegi bereziak<sup>149</sup>. Ideia eta faktore ideazional horiek eraikuntza mentalak dira, eta hainbat zeregin betetzen dituzte:

- a) *Munduari buruzko pertzepzio, oinarri eta balio partekatuen eraikitzen dituzte.* Konstruktibisten ustez, faktore materialek ideia partekatuen esparru jakin batean baino ez dute esanahia hartzen. Adibidez, Kanada AEBren aliatua da eta Kuba etsaia, eta hori ezin da azaldu botere militarrean funtsatutako arrazoen bidez, baizik eta identitate, ideologia edo laguntasunari/etsaitasunari lotutako ideien bidez<sup>150</sup>. Ildo horretan, faktore kulturalak garrantzi handia dute nazioarteko politikan; adibidez, itunak eta nazioarteko erakundeak eratzerakoan, edo une jakin batean indarrean dauden estrategia politiko-militarretan. Ikuspegi horien aurrez aurre, neorrealistek eta neoliberalak garrantzi txikia ematen diete ideiei: estatuek beren interesak lortzeko erabiltzen duten tresna bat besterik ez dira haientzat, eta, hortaz, ez dute aztertzen nola eratzten diren<sup>151</sup>.
- b) *Aktoreen interesak eta identitateak ere sortzen dituzte.* Ideiek, arauk eta beste egitura ideazional batzuek eratzten dituzte gizartearen eta estatuaren identitatea osatzen duten balioak eta arauak. Esate baterako, gaur egun subiranotasunari eta ez-injerentziari buruz dauden arauk eratzten dute egungo estatu subiranoaren identitatea (oso bestelakoa dena iraganeko beste estatu molde batzuekin erkatuta; adibidez, monarkia absolutisten ondoan).

<sup>149</sup> Ideiak mota desberdinetakoak izan daitezke: «mundu-ikuskerak», edo kultura baten bereizgarri diren ikuskerak; «sinesmen normatiboak», ona eta txarra bereizteko eta jokabide sozialak bideratzeko aukera ematen dutenak; «sinesmen kausalak» kausa-ondorio harremanak azaltzen dituztenak, eta helburuak lortzeko orientabidea ematen dutenak; «ideologiak», asmo politikoak adierazten dituzten eta giza jarduera bideratzen duten doktrinak; eta «preskripzio politikoak», edo arazo zehatzak konponduko dituzten erabaki politikoak hartzeko orientazioa ematen duten idcía bereziak. Ikus IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo...», *op. cit.*, 196. or.

<sup>150</sup> REUS-SMIT, Chistian (1999), «Constructivism», *op. cit.*, 196. or.

<sup>151</sup> IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo...», *op. cit.*, 197.-1



- c) *Nazioarteko jokaeretan eta politiketan eragiten dute.* Konstruktibisten arabera, estatuek ez dute jarduten interesak kalkulatzeko —errealismoak dioenez—; ahalik eta botere handiagoa izateko —errealismoak dioenez—; gehienetan (salbuespenak kenduta), partekatutako eta legezko hartutako balioak, printzipioak eta arauak (subiranotasuna, ez-injerentzia, giza eskubideak, nazioarteko lankidetzak, etab.) jarraiki jarduten dute. Partekatutako ideiek, aukerek edota ikuspegiak ez dute jokatzeko jarraibide zehatzik sortzen, baina orientabidea ematen dute, bide jakin batetik zuzentzeko, eta parte-hartzaileen arteko harremanen izaera eratzen dute (lankidetzakoak edo gatazkatsuak izatea). Ildo horretan, azterketa konstruktibista batzuek sakon aztertu dute zer-nolako eragina duten adituen sareek (segurtasunekoek, NHeetakoek...) beren estatuen interesak azaltzean eta arazo politiko zehatzak kudeatzean.

Konstruktibistek garrantzi handia ematen diote faktore ideazionalak nazioarteko errealitatea eraikitzeke duten zereginari, eta, beraz, arlo horretan oinarritutakoak diren kontzeptu asko aztertu dituzte (beren jatorria, bilakaera, interpretazioak, etab.). Kontzeptu horietako bi dira segurtasuna eta mehatxua. Errealismoaren iritziz, kategoria objektiboak eta finkoak dira (definizioz, segurtasuna estatuarena da eta mehatxuak militarrek dira), faktore materialen mendekoak (gaitasun militarren edo lurraldearen kontrolaren arabekoak, etab.). Aitzitik, konstruktibismoaren ustez, sozialki sortu dira, prozesu diskurtsibo bidez, zenbait parte-hartzailek (politikariek, adituek, hedabideek, eta abarrek) gertakari jakin bat segurtasunerako (estatuaren edo pertsona eta komunitateen segurtasunerako) mehatxutzat jotzen baitute; adibidez, berotze globala, migrazioak, eta, bereziki, irailaren 11ren ondorengo nazioarteko terrorismoa.

### 7.3. Arauen eta instituzioen eragina

Konstruktibismoak arreta handia ematen die nazioarteko araei, eta, ondorioz, baita nazioarteko instituzioei ere, haren ustez funtsezko zeregin bat betetzen dutelako nazioarteko politikan: nazioarteko aukeretan eta ekintzetan eragina izateaz gain, harago doaz, laguntza ematen baitute parte-hartzaileen interesak eta identitateak eratzeko.

Konstruktibistek zalantzan jartzen dute neorrealismoak eta neoliberalismoak araez egiten duten interpretazioa, estatuen arteko harremanak arautzen dituzten tresna hutsak balira bezala (eta, gainera, maiz, estatuek beren intereserako erabiltzen dituztenak). Aitzitik, konstruktibismoaren arabera, arauak parte-hartzaileek dituzten aukera estrategikoak eta diskurtsiboak mugatzen dituzte, eta aukera horietako askok parte-hartzaileen



existentzia eta identitatea bera ere eratzten dituzte. Hortaz, arau «erregulatzaileak» egoteaz gain, arau «eratzzaileak» ere badaude: Ruggiek dioenez<sup>152</sup>, lehenek kausa-efektuak sortu nahi dituzte, eta bigarrenek, berriz, antolatutako jarduera sozial bat zertan datzan zehazten dute. Argibide gisa, trafiko-arauak erregulatzaileak dira, ibilgailuen mugimendua antolatu eta erraztu nahi dutelako, baina haiek gabe ere ibilgailuak gidatu ahal izango genituzke. Aitzitik, xakeko arauak eratzzaileak dira, joko hori eratzten baitute, eta haiek gabe ezinezkoa bailitzateke jokatzea. Hortaz, konstruktibistek arreta handiz hartzen dituzte arau eratzzaileak, horiek eta eratzten dituzten instituzioek bide ematen baitute estatuen sistema, estatuak eta nazioarteko beste parte-hartzaile batzuk egon daitezzen. Izan ere, estatuen nazioarteko sistema prozesu historiko baten emaitza da, eta arau eratzzaile batzuk ditu oinarrian, horien artean bereziki nabarmengarria izanik estatuen subiranotasuna elkarri onartzea.

Arauci emandako garrantziaren ondorioz, konstruktibistek arreta handiz hartzen dute nazioarteko erakundeen eta erakunde horiek nazioarteko gizartean duten zereginaren azterketa. Haren zeregina ez da mugatzen estatuen arteko lankidetzara —neoliberalak diotenez—; harago jotzen dute: zeregin erabakigarria dute nazioarteko gizartearen arau eratzzaileak definitzeko, eta horiek eta hainbat printzipio plano desberdinetan estatuei igortzeko; azken batean, horietatik sortzen dira estatu-politikak. Hala, GGNB (Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea) erabakigarria izan da nazioarteko zuzenbide humanitarioa zabaltzeko (gerretan indarrean egoten dena), eta Munduko Bankuak garatzeko bidean dauden herrialdeetako politika ekonomikoak gidatu ditu hainbat hamarkadatan<sup>153</sup>.

#### 7.4. Identitateen eta interesen eraikuntza, eta horiek ekintzan duten eragina

Konstruktibismoaren oinarritzko ideia da nazioarteko politikan parte-hartzaileen identitateek, beren interesek eta, hortaz, beren ekintzek eragin-trukea dutela elkarren artean eta, gainera, sozialki eraikita daudela.

Estatuek beren interesak nola definitzen dituzten eta zein politikak abiarazten dituzten ulertu ahal izateko, konstruktibisten ustez, ezinbestekoa da haien identitateak aztertzea: «identitateak interesen oinarria dira»,

<sup>152</sup> RUGGIE, John G. (1998), «What Makes the World Hang Together? Institutionalism and the Social Constructivism Challenge», in *International Organization*, 4. zk., 871. or.

<sup>153</sup> IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo...», *op. cit.*, 200. or.



Wendtek esan zuenez<sup>154</sup>. Esate baterako, demokrazia liberala izateak interesak sortzen ditu; adibidez, erregimen autoritarioen aurka egotea edo merkatu librearen babestea.

Egile arrazionalisten ustez, funtsean, estatu guztiek dute identitate bera, beren subiranotasuna eta segurtasuna gorde nahi dituzten parte-hartzaile egoistak direlako. Hortaz, «interes nazionalak» dituzte, berezkoak eta antzekoak (nola babesten dituzten da desberdintasun bakarra). Hori guztia oinarritzko printzipiotzat har daiteke nazioarteko politika aztertzeko. Hala ere, konstruktibisten ustez, estatu bakoitzak bere identitatea du, sozialki eraikia, esanahi intersubjektiboen, eta munduari buruzko interpretazioen eta usteen sare batetik abiatuta. Identitate desberdin horietan oinarritzen da mota askotakoak izan daitezkeen estatuen lehentasunen eta interesen eraikuntza. Interesek parte-hartzaileen ekintzak bideratzen dituzte, eta ekintzek identitateak ekoizteko eta erreproduzitzeko duten esparrua eratzen dute. Ondorioz, identitateen eta interesen aniztasun hori dela eta, nazioarteko parte-hartzaileek modu askotara joka dezakete, eta, beraz, nazioarteko politika konplexuagoa da, ez da aurreikusgarria, korronte klasikoek uste zutenaz bestera<sup>155</sup>.

Konstruktibisten ustez, materialak ez diren egiturek —aktoreen identitateak eta interesak eratzen dituzten horiek— zehazten eta mugatzen dute beren ustez egin dezaketena, atzemandako mugen esparrua finkatzen diete beren helburuak lortzeko dituzten ekintzei, alde praktikoan eta etikoan. Demokrazia liberala duen herrialde bateko gobernuak bakarrik joko ditu egokitzat mota bateko estrategiak eta ekintza politikoak, egitura normatibo eta ideazional jakin batzuekin bat badatozenak. Ekintza egin ondoren, gobernuak ahalegina egingo du bere jokaera justifikatzeko, legezko arau batzuk aipatuta (subiranotasunaren, giza eskubideen eta abarren babesa); horrek argi erakusten du zenbateko pisu morala duten ideiek eta arauak nazioarteko politikan eta testuinguru jakin batean<sup>156</sup>.

Azken batean, konstruktibismoak arretaz hartzen du identitateen, interesen eta estatuen jardunaren arteko interakzioa; haren ustez, identitateak zantzuak eskaintzen dizkigu jakiteko nola definitzen dituzten estatuek beren interesak, eta zein diren estatuek egin ditzaketen ekintza aurreikusgarriak. Dena dela, estatu baten identitatea beste estatuek hari buruz duten irudiak eratzen du neurri batean, hau da, ematen dioten identitateak; beraz, estatuen elkarrekiko pertzepzioek laguntza ematen dute esanahi inter-

<sup>154</sup> WENDT, Alexander (1992), «Anarchy is what States Make of it», in *International Organization*, 46. lib., 398. or.

<sup>155</sup> IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo...», *op. cit.*, 201.-203. or.

<sup>156</sup> REUS-SMIT, Chistian (1999), «Constructivism», *op. cit.*, 199. or.



subjektiboak sortzeko, eta, ondorioz, eragin handia dute nazioarteko politikan<sup>157</sup>.

Horrek beste ondorio bat dauka: konstruktibismoa ondo hornituta dago nazioarteko gizartean dauden aldaketa-prozesuak ulertzeko, garrantzi handia ematen baitio faktore ideazionalak —berez, arinak eta aldakorrek diren faktoreek— nazioarteko egiturak eta nazioarteko parte-hartzaileen praktika politikoa eratzeko prozesuan duten eraginari. Azterketa konstruktibista gehienek prozesuak aztertzen dituzte (sozialak, historikoak, politikoak, etab.), eta, beraz, aldaketa ezinbesteko atala da haien ikerketa-agendan.

### 7.5. Agenteen eta egituren elkarrekiko eraketa

Ikusi dugunez, NHetan eta gizarte-zientzietan dagoen eztabaia garrantzitsu baten ardatza da unitateek edo agenteek zenbateko garrantzia duten, osotasun, sistema edo aztertutako errealitate sozialaren egiturarekin erkatuta. Ildo horretan, konstruktibismoaren zutabe teorikoetako bat —Wendtek formulatua— da agenteek eta egiturek elkar eratzen dutela, eta ezin dela esan bat bestea baino lehenagokoa edo nagusiagoa denik. Wendten arabera, elkar eratzen dute, «giza agenteen ahalmenek eta existentziak berak ezinbestez egon behar dutelako lotuta nola edo hala egiturazko testuinguru sozial batekin»<sup>158</sup>.

Ikusi dugunez, konstruktibismoa egituren existentzian oinarritzen da, baina beste joera batzuentzat ez bezala (marxismoarentzat, neorrealismoarentzat), harentzat egitura horiek ez dira materialak, ideazionalak baizik. Egitura ideazionalak eta normatiboak parte-hartzaile indibidualen gainetik daude, eta horien identitateak, interesak eta ekintzak eratzen dituzte (ekintzarako aukera errealei buruzko pertzepzioak sortuz); baina,aldi berean, parte-hartzaileen praktikak eta elkarrekiko interakzioa dira egitura sozial horiek sortzen eta erreproduzitzen dituztenak. Adibidez, demokrazia liberalak azken hamarkadetan eredu nagusi gisa jarri dituzten nazioarteko arauak aurrera jarraitzen dute estatu horiek dituzten praktikei esker<sup>159</sup>.

Agenteen eta egituren arteko elkar eratzeko erlazio dialektiko hori Wendtek nazioarteko sistemaren anarkiaz ematen duen azalpenean agertzen da. Errealismoaren iritziz, nazioarteko sistemaren ezaugarri objektibo-

<sup>157</sup> IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo...», *op. cit.*, 202. or.

<sup>158</sup> WENDT, Alexander (1987), «The Agent-Structure Problem in International Relations Theory», *International Organization*, 41. lib., 3. zk., 335. or. (Hitz etzana jatorrizko testuan).

<sup>159</sup> WENDT, Alexander (1992), «Anarchy is what States Make...», *op. cit.*, 406. or.



boa eta berezkoa da, eta behartu egiten ditu estatuak boterea ugaltzera eta *autolaguntza* garatzera, segurtasuna bermatzeko. Hala ere, Wendtek bere lan baten izenburuan dioenez, «anarkia da estatuak harekin egiten dutena» (*Anarchy is what states make of it*, 1992). Bestela esanda, haren existentzia ez da saihestezina; estatu bakoitzak duen pertzepzioaren eta jarrearen araberakoa da: estatu bakoitzak, eratu duen identitatearen arabera, modu desberdinetan interpreta dezake anarkia, segurtasunari eta beste estatu batzuekiko harremanei buruzko ikuspegi desberdinekin, dela bakezko lankidetzako ikuspegiekin, dela etsaitasunezko eta gatazkako ikuspegiekin. Konstruktibistek nabarmentzen dutenez, nazioarteko arauen eta erakundeen hedapena lagungarria izan da anarkia gutxitzeko eta nazioarteko gobernantza indartzeko.

#### 7.6. Konstruktibismo konbentzionala eta konstruktibismo kritikoa

Orain arte konstruktibismoaz aritu gara oro har, baina esparru hori oso heterogeneoa da, eta korrante eta izen ugari ditu. Bi konstruktibismo motatan multzoka ditzakegu: konbentzionala edo moderatua, eta kritikoa<sup>160</sup>.

Konstruktibismo konbentzionala da nagusi, eta Alexander Wendtek eta John Ruggie-k<sup>161</sup> ordezkatzeko dute, besteak beste. Bere helburua beti izan da diziplinan zubiak eraikitzea, eta, beraz, laguntza eman du arrazionalismora hurbiltzeko, eta hasieran zuen osagai kritikoa gutxitu du pixkanaka. Haren ikerketa-agenda arrazionalista da hein handi batean, eta estatuen arteko lankidetzako eta gatazkako harremanak ditu ardatz, estatuak arlo pribilegiatua baitira horietan. Wendtek, bereziki, agenda estatuzentrikoa du, haren ustez estatuak garrantzi handia baitute eta haien praktikak baitira nazioarteko gizartearen identitatea moldatzen dutenak. Estatuzentrisimo horrek haren lanaren gaitasun esplikatzailea mugatzen du —hala kritikatu zaio—, bazterrean uzten baititu nazioarteko gizarteko aldaketa azal dezaketen indar normatibo eta ideazional gehienak<sup>162</sup>.

Bestetik, hasieran epistemologia positibistak eta postpositibistak erabili zituzten, baina denboraren poderioz aurrenekoei eman diete lehentasuna.

<sup>160</sup> Konstruktibismo moten sailkapen asko daude. Aipatutakoa honek proposatu zuen: HOPF, Ted (1998), «The Promise of Constructivism», in *International Security*, 23. lib., 1. zk., 171.-200. or.

<sup>161</sup> WENDT, Alexander (1999), *Social Theory of International Politics*, Cambridge University Press, Cambridge. RUGGIE, John G. (arg.) (1998), *Constructing the World Polity: Essays in International Institutionalization*, Routledge, Londres. Hona hemen konstruktibismo moderatuko beste egile batzuk: Nicholas Onuf, Friedrich Kratochwil, Emanuel Adler eta Peter J. Katzenstein.

<sup>162</sup> REUS-SMIT, Chistian (1999), «Constructivism», *op. cit.*, 200. or.



Haien ustez, egiten duten lana bateragarria da arrazionaltasunarekin, eta orokortasun teoriko batzuk egon behar dira; azken batean, zientzia «normal»aren barruan kokatu nahi dira<sup>163</sup>. Ildo horretan, konstruktibismo kritikoak ez bezala, ez dute onartzen haien lana konpromiso politiko eraldatzailean oinarritu behar denik.

Dimentsio ideazionalak (identitatea, balioak, etab.) eta esanahi inter-subjektiboak aztertzen dituzte; eta, era horretan, errealismoak bere oinarri materialistarekin eta estatuak egoistak direlako ideiarekin ezin azal ditzakeen alderdiak azal ditzakete. Izan ere, hori da nagusi diren joeretatik bereizten dituen elementua. Beraz, arreta handiz aztertzen dituzte nazioarteko arauen sorrera eta bilakaera; esate baterako, arma kimikorik ez erabiltzeko edo Genevako Hitzarmenei jarraiki gerra-egoeretan biztanle zibilei laguntza humanitarioa emateko bide ematen duten arauena. Era berean, asko interesatzen zaie balioek eta identitateak estatuen eta nazioarteko erakundeen jardunean betetzen duten papera. Esate baterako, haien ustez, Gerra Hotza amaitu ondoren IAIE/NATO ez desagertzeak argi erakusten du erakunde hori ez zela bakarrik sortu eta egon kanpoko mehatxu bati aurre egiteko; horrez gain, kide guztiek partekatzen zituzten balio demokratiko liberalen ondorioa da<sup>164</sup>.

Bestetik, konstruktibismo kritikoaren —besteak beste, David Mutimer-en eta Karen Fierke-ren<sup>165</sup>— eta konstruktibismo moderatuaren artean, hainbat desberdintasun daude.

- a) Haren epistemologia guztiz postpositibista da, onartzen baitu ikertzaileak ezinbestez parte hartzen duela aztergai dituen entitate sozialak eratzeko eta erreproduzitzeko prozesuan, postpositibismo konbentzionalaren aurrez aurrez, horrek distantzia hartu nahi baitu aztertutako errealitatearekiko<sup>166</sup>. Gainera, alde batera uzten ditu kausalitate-ideiak, eta subjektuen hizkuntza-erakuntza sortzen duten praktika diskurtsiboak hartzen ditu azterketaren ardatz gisa. Azken batean, ez du zientzia «normal»aren barruan kokatzeko interesik, jakintzaren eta jakintza lortzeko moduen

<sup>163</sup> HOPF, Ted (1998), «The Promise of Constructivism», in *International Security*, 23. lib., 1. zk., 182.-184. or.

<sup>164</sup> BUZAN, Barry eta Lene HANSEN (2009), *The Evolution of International Security Studies*, Cambridge University Press, Cambridge (Erresuma Batua), 196. or.

<sup>165</sup> MUTIMER, David (1999), *The Weapons State. Proliferation and Visions of Security*, Lynne Rienner, Boulder (Colorado, AEB); FIERKE, Karin (2002), *Critical Approaches to International Security*, Polity, Cambridge. Hona hemen beste idazle batzuk: Richard Ashley, David Campbell, James Der Derian eta Robert Ross.

<sup>166</sup> IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo...», *op. cit.*



gainetik egia ezartzen duen diskurtso hegemonikotzat hartzen duelako<sup>167</sup>.

- b) Bi konstruktibismoen ustez, errealitatea sozialki eraikita dago, baina desberdintasunak dituzte horri dagokionez. Konstruktibismo konbentzionalaren iritziz, errealitatearen eraikuntzek sortzen dituzten identitateek parte-hartzaileen ekintza baldintzatzen dute, eta, beraz, nola erreproduzitzen diren eta zer eragin duten baizik ez dute aztertzen. Konstruktibismo kritikoa harantzago joaten da, haren ustez errealitatearen eraikuntza guztiek botere-harreman jakin batzuk islatzen eta gauzatzen baitituzte. Hortaz, haien ikerketan, lehentasunezkoa da identitateak argitzea, haien eraketari buruzko mitoak desegitea, eta interakzio sozial guztietan agertzen den boterearen erabileran ezkutatuta dauden mekanismoak agerian uztea (konstruktibismo konbentzionalak, aldiz, ez du hori egingiten)<sup>168</sup>.
- c) Diskurtsoaren eta boterearen arteko lotura horren ondorioz, ikuspegi kritikoa du —errealismotik argi eta garbi bereizita—, eta zalantzan jartzen du konstruktibismo konbentzionalaren estatuzentrismoa. Hargatik, gainera, normalean onartzen du ikerkuntza-lanak konpromiso politiko eraldatzailea dakarrela. Horiek horrela, ikuspegi postpositibistekin lotuta dago<sup>169</sup>, batez ere postestrukturalismoarekin.

Aldaera honek duen lan-ildorik garrantzitsuenetako bat da NHetan —batez ere errealismoan— funtsezkoak diren kontzeptuen hizkuntza-azterketa (hala nola, interes nazionala, segurtasuna, etab.); horien arabera, diskurtsiboki sortzen dira irudikapenen (herrialdeen, herrien, eta abarren) eta hizkuntza-elementuen (izenen, adjektiboen, metaforen, analogien, eta abarren) bidez. Hortaz, estatuen kanpoko politikak ez dira interes nazional objektiboen ondorioa; aitzitik, legezkoztat jotzen dira eraikuntza berezien bidez. Adibidez, Fierkek aztertu duenez, Mendebaldeak Bosniako gerran eman zituen erantzun politikoak hizkuntza-joko zehatz batek itxuratu eta babestu zituen, identitate desberdinak eraiki zituena tartean nahasita zeuden sektore bosniar bakoitzarentzat eta Mendebaldearentzat<sup>170</sup>. Diskurtsoei emandako garrantzi horrek —identitate, interes eta politiken sortzaile gisa— postestrukturalismoarekin lotzen du. Hala ere, konstruktibismo kritikoa testu zehatz batzuetan dauden kontzeptuen analisisa du

<sup>167</sup> IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo...», *op. cit.*, 212. or.

<sup>168</sup> IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo...», *op. cit.*, 212. or.

<sup>169</sup> PEOPLES, Columba eta Nick VAUGHAN-WILLIAMS (2010), *Critical Security Studies. An Introduction*, Routledge, Abingdon (Erresuma Batua), 6. or.

<sup>170</sup> IBÁÑEZ, Josep (2015), «Socialconstructivismo...», *op. cit.*, 198.-199. or.



ardatz; postestrukturalismoak, berriz, sakonago sustraituta dauden identitateekin lotu ohi ditu kontzeptu horiek (Mendebaldekoa/Ekialdekoa, zibilizatua/barbaroa, demokratikoa/despotikoa, etab.)<sup>171</sup>.

*Sekuritizazioaren teoria*<sup>172</sup> da ikuspegi konstruktibistak oro har izan duen aplikaziorik nabarmenatariko bat; Kopenhageko Eskola ospetsuak formulatu zuen, Barry Buzan, Ole Waever eta beste autore batzuekin. Tresna egokia da batzuetan hainbat gaitan izaten diren sekuritizazio-prozesuak aztertzeko, nola, noiz eta zergatik gertatzen diren eta ondorioak zein diren ulertzeko. Arazo jakin baten (epidemien, migrazioen, ingurumenaren hondamenaren, eta abarren) *sekuritizazio* izeneko da arazo hori estatuaren edo gizartearen segurtasunerako mehatxu gisa aurkezteko prozesua. Sekuritizazioa ez dago arazoari dagozkion ezaugarri mehatxagarrien mende. Hizketaren ekintzaren emaitza da (*speech act*), hau da, diskurtso intersubjektibo baten prozesuaren ondorioa: parte-hartzaile batek (politikariek, hedabideek, eta abarrek) arazo bat mehatxua dela dioen diskurtsoa sortzen duenean, eta inguruabar jakin batzuetan (diskurtsoa sortu duenak agintea duenean, iraganean ere mehatxu hori bizi izan denean, etab.) entzuleek hori sinesgarritzat jotzen dutenean agertzen da.

Teoria horrek ohartarazten duenez, maiz arazo baten sekuritizazioa erabiltzen da, salbuespeneko eta premiako neurri politikoak hartzea legez-kotzat jotzeko (hasi zerbitzu publikoak itxi eta eskubideak murriztearekin, eta gerra-legea ezarri arte). Horrek esan nahi du erantzuna ez dela hain gardena, partaidetzakoa eta demokratikoa izango; erreaktiboagoa, bertikalagoa eta are militarizatuagoa izango dela. Hargatik, *desekuritizazioa* aldeztu du; hau da, gaiak larrialdiko kudeaketa izan beharrean, kudeaketa politiko arrunta izatea.

### 7.7. Ekarpinak eta kritikak

Konstruktibismoak diziplinaren mapa teorikoa aberastu du, elementu normatiboen pisua nabarmenduta; eta horrek diziplinako *mainstreama* zailantzan jartzea ekarri du. Gehienbat, faktore materialetan (adibidez, botere militarrean edo aberastasunean) oinarritutako azalpenek dituzten mugak frogatu ditu, egitura ideazionalen garrantzia azpimarratuta. Bestetik, erakutsi du ideiek, arauk, balioek eta diskurtsoek nazioarteko politika

<sup>171</sup> BUZAN, Barry eta Lene HANSEN (2009), *The Evolution of International...*, op. cit., 199. or.

<sup>172</sup> Hau da sekuritizazioari buruzko erreferentziako obra nagusia: BUZAN, Barry, Ole WAEVER eta Jaap DE WILDE (1998), *Security: A New Framework...*, op. cit. Teoria honen sintesi bat ikusteko: PEOPLES, Columba eta Nick VAUGHAN-WILLIAMS (2007), *Critical Security Studies...*, op. cit., 75.-88. or.



modelatzen dutela, eta identitateek agenteak eta haien egiletza (haien ekiteko gaitasuna; ing. *agency*) eratzen dituztela.

Era berean, jarrera indibidualisten eta estrukturalisten arteko polarizazioaren aurrean, jarrera orekatsua ekarri du, agenteek eta egiturek elkarrekiko erlazioa dutela eta elkar eratzen dutela adierazita.

Bestalde, agerian utzi du neorrealismoaren izaera immobilista, determinista eta kontserbadorea, testuingurutik bereizita dagoen ustezko lege unibertsal batek —biziraupena bilatzeak— estatuak gidatzen dituela sinetsita, onartzen baitu testuinguru bereziak ez duela garrantzirik eta garrantzia duen ezer ez dela historian aldatzen. Aitzitik, konstruktibismoak bereziki nabarmentzen du ideien, balioen eta identitateen garrantzia, eta horiek aldatu egiten direla kultura, gizarte eta denborako testuinguru desberdinen arabera. Hargatik, laguntza eman du diziplinan bi dimentsioerikiko interesa berpizteko: analisi soziologikoak, nazioarteko gizartearen azterketan sakonduta (Eskola Ingelesaren lana osatuta), eta historia; horretan ere lagungarriak izan dira Gerra Hotzaren amaieraren eta globalizazio-prozesuaren ondorioz mundu osoan izandako aldaketak. Lan konstruktibista askok interesa erakutsi dute aldaketa sozialeko prozesuekiko. Are gehiago, konstruktibismoak argi frogatu du ideiek aldaketa soziala susta dezaketela, eta aldaketa horren dinamikak eta mekanismoak argitu ditu<sup>173</sup>.

Hortaz, nabarmenki aberastu du diziplina, batetik, hainbat gairen analisisia sartu duelako, eta, bestetik, eta batez ere, 80ko hamarkadara arte baztertuta zeuden ikuspegi normatiboak, soziologikoak eta historikoak berreskuratu dituelako.

Dena dela, mundu mailako politikan funtsezkoak diren zenbait alderdiri buruz eman dituen azalpenak direla-eta, gero eta onartuago dago, eta, hala, konstruktibismo gehienak alde batera utzi ditu kritikoagoak ziren hasierako postulatuak, korrante postpositibistetatik —adibidez, postestrukturalismotik— gertu zeudenak, eta *mainstreamera* hurbildu da. Izan ere, konstruktibista batzuek arrazionalismoarekin lankidetzan aritzea proposatzen dute, lan-banaketa baten bidez. Horren arabera, arrazionalismoak aztertuko du parte-hartzaileek nola bilatzen duten estrategikoki beren interesak asetzea (finkatutzat jotzen dituzten interesak); bestetik, konstruktibismoak azaldu beharko luke nola eraikitzen diren interes horiek, ideia, arau eta interesetatik abiatuta<sup>174</sup>.

Nolanahi ere, konstruktibismoak era askotako kritikak jaso ditu. Ikuspegi tradizional batzuek leporatu diote ez duela zorrotzasun zientifikorik,

REUS-SMIT, Chistian (1999), «Constructivism», *op. cit.*, 206.-207. or.

ITT, Chistian (1999), «Constructivism», *op. cit.*, 203. or.



faktore ideazionalak nekez neur daitezkeelako. Bestetik, ikuspegi postpositibistek konstruktibismo tradizionalaren hainbat alderdi jartzen dituzte zalantzan: hasierako indar kritikoa eta emantzipatzailea galdu duela; haren analisiak despolitizatuta daudela; estatuen analisisian oinarritzen dela, estatuak emantzat dagoen zerbait balira bezala eta kritikatu gabe; ez duela faktore ideazionalen (hau da, interesen eta azpian dauden botere-egituren) dekonstrukzioa egiten; eta, azken batean, ez duela interes argirik aztertzen duen eta sozialki eraikita dagoen errealitatea eraldatzeko.